

# Agertoki bat amaren ametsentzat

Xabier Payak eta Iker Oruetak 'Bihotza kate' albuma plazaratu dute, elkarlanean • Payaren amaren bizitza hartu dute oinarri, antzerki kutsuko kontakizun ilustratu bat sortzeko • Peru Abarka sariketaren bultzadaz osatu dute liburua

**Alex Uriarte Abrikallende**  
Donostia

«Maleta bat, ezerezaren erdian. Maleta bat eta hark errepresentatzen dituen bidaiak, norabide aldatetakoak, bizipenak». Horixe da Xabier Payak (Getxo, Bizkaia, 1982) eta Iker Oruetak (Bilbo, 1995) kaleratu berri duten *Bihotza kate* liburuaren abiapuntua.

Bi sortzaileek obraren nondik norakoak azaldu dituzte Donostiako Udal Liburutegian egindako aurkezpenean. Haiekin batera, liburua argitaratu eman duen Erein argitaletxeko Uxue Razkin editorea izan da, eta, haren arabera, «kutsu unibertuala eta, aldi berean, intimoa» du *Bihotza kate*-k. Izan ere, Xabier eta Fredi Payaren amaren bizitzan oinarritutako liburua da, baina edozeinen errealitateari «ezin hobeto» aplikatu daiteke: «Obraren ardatza amets batzuei muzin egitean, beste batzuei heltzean eta aukerak hartzean oinarritzen da», azpimarratu du Razkinek.

Payak argitu du zergatik aukeratu duen ama testuen eta ilustrazioen oinarritzat: «Liburua haren pasadizoak entzunez jaio da; jaso ditudan ohar guztietan igartzen da ama behinola bidegurutzetara izan zela, eta amets berriak bilatu behar izan zituela».

Lanean, Payaren amaren antzerkiarekiko zaletasuna suma daiteke. Ilustrazio askok agertoki itxura dute, eta testuan ageri diren erreferentzia guztiak diziplina horretako pertsonenak dira. «Testuak transmititzen dituen langai pertsonalak eta intimoak fikziozko antzoki batera eramaten saiatu naiz», adierazi du Oruetak. Ondorioz, azaldu du testua «irudien radarrarekin» irakurri zuela, alegia, «eszenografiaren bila».

*Bihotza kate* Ereinek eta Markina-Xemeingo Udalak antolatutako Peru Abarka album lehiaketara irabazita ondu dute bi egileek. Razkinek azaldu duenez, sariketa horren xedea da «irabazlea zirkuitu komertzialean murgilaraz-

tea, udalak publikatutako lanen kutxan gordeta utzi ordez». Bi atal ditu sariketarako: idazleei dagokiena, eta ilustratzaileena. Iaz aurkeztu zituzten 21 idazlanetatik azkena izena emandakoa gailendu zen: Payarena. Ilustratzaileen atalean, berriz, hiru baino ez ziren aurkeztu sariketara, eta

**Payak azaldu du amaren pasadizoak entzunez sortu zela lana; horregatik daude haren bizipenak liburuaren oinarrian**

**Payaren hitzak fikziozko antzoki batera eramaten saiatu da Oruetak, haren amaren antzerkiarekiko zaletasuna nabarmentzeko**

epaimahaiak Orueta izendatu zuen irabazle; horrenbestez, hark jantzi du ilustrazioz Payaren testua.

Testuen eta ilustrazioen arteko uztarketak berez duen konplexutasunaz galdetuta, «norabide

bakarreko lan moldean» aritu direla azaldu du Payak: «Testua moldatu barik egin dira ilustrazioak, hau da, idazkietara egokitu-tuta». Irudigilearen trebezia goraipatu du, alde horretatik: «Gai izan da liburuaren kontakizun den metanarratiba, testuak eta antzerkiak osatutakoa, hirü dimentsiotan irudikatzen». Hain zuzen, ilustratzaileak nabarmendu du «etxekotasun handia darien baina edonork bere egin ditzakeen testuekin» topo egin zuela irudiak sortzean. «Horrek asko ez ditu dit lana», gehitu du.

Halaber, Payak aitortu du bere burua idazle gisa ikusi duen «lehendabiziko aldia» izan dela hau. Liburua idatzita hitzek aurrez eman izan dioten «bertigoa» gairatu duela adierazi du, eta Joserra Gartzia egindako ekarpena goraipatu: «Haren pareko zuzentzaile, kritikari, editore eta aholkulari batekin, neure burua askoz ere seguruago ikusi dut, eta hori bultzada bat izan da liburuaren

idazte prozesuan aurrera egiteko orduan».

**Bide berrietara «zabalik»**

Hurrengo urratsari so, liburua antzerkigintzara eramatea «mahai-gaineratu daitekeen aukera» da, bi sortzaileentzat. Helmuga hori, baina, «urrun samar» dakusate. Izan ere, antzerkiaren munduan sartzeak «dramaturgia lan dezente sakonagoak» eskatzen ditu, eta oraindik planteatu ere ez dituzte egin; *Bihotza kate*, hortaz, «sormenaren jomuga berrietara zabalik egon daitekeen artefaktu artistiko bat da».

Obra zer irakurleri zuzenduta egon daitekeen esatean, hala idazleak, nola ilustratzaileak ez dute zalantzarik egin, eta liburuaren hastapenean dagoen esaldira jo dute. Hasieran, maleta baten ilustrazioa ageri da, baita obra laburtzen duen tesia ere; hartan bilduta daude «lanaren hartzaile eta xede oro»: *Amarentzat, eta beste amets batzuk bilatu behar izan zituztenentzat*.



Xabier Paya eta Iker Orueta *Bihotza kate* liburuaren egileak, atzoko aurkezpen agerraldian, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / FOKU